BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ (LOTEKA) ESKURATZEKO UDAL-ARGITERIA PUBLIKOA MANTENTZEKO ZERBITZUARENTZAKO LUMINARIEN HORNIDURA (12885/2026)

JANIRE OCIO CELADA (3. guztira 3)
ZINEGOTZIA/CONCEJALA
Sinaduraren data: 13/08/2026
HASH: 9d1146f65ae36a2502f66815cdf63bcf

PEDRO MARIA SACRISTAN GONZALEZ (2. guztira 3)
ARLOKO ARDURADUNA/RESPONSABLE DE AREA
Sinaduraren data: 12/08/2026
HASH: 89d56a46e1e5e5d112b888c8e2a312c1

JAGOBA LOPEZ ANSOLEAGA (1. guztira 3)
INDUSTRIAKO INGENIARI TEKNIKOA/INGENIERO/A TECNICO INDUSTRIAL
Sinaduraren data: 12/08/2026
HASH: 7d46274714716978 0a04099eeee27835

Getxo

Baliozkotze Kod.: 446MA2XHNCSSZH7FT7JHZDEST
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 12

1. KONTRATUAREN XEDEA:

Kontratu honen xedea da Udal Argiteria Publikoko Zerbitzuarentzako bide-luminariak (I. eranskinean adierazitako ezaugarriak dituztenak) eskuratzea prozedura irekiaren bidez.

ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK BETE BEHAR DIREN EZAUGARRIAK DIRA, BAINA, HORNIDURA ESKAINTZEN DUEN HORNITZAILEAREN ARABERA, GAMA BEREKO ALDAERA TXIKIAK ONARTUKO DIRA, BALDIN ETA BETE BEHAR DUTEN XEDERAKO ANTZEKO EZAUGARRIAK BADITUZTE ETA SEKULA ERE EZAUGARRI GUTXIAGO EZ BADITUZTE.

ESKAINTZAK AURKEZTEAN EZ DA ALDAERARIK ONARTUKO, ESKATUTAKO PRODUKTUAREN GAMA BEREKOAK EZ BADIRA. BEREN ESKAINTZETAN ALDAERAK AURKEZTEN DITUZTEN ENPRESA LIZITATZAILEAK AUTOMATIKOKI LIZITAZIOTIK KANPO GERATUKO DIRA, BAINA ESKATUTAKO PRESTAZIO TEKNIKOETAN HOBEKUNTZAK ONARTU ETA BALORATUKO DIRA.

Kontratuaren xedeari dagokion CPV nomenklaturaren kodea:

- 34928530-2 Argiteria publikoko lanparak.

Kontratuaren xedeari dagokion CPA nomenklaturaren kodifikazioa hauxe da:

- 27.40.2 Lanparak eta argiztapen-aparatuak.

2.- LIZITAZIO-OINARRIA:

Hornidura-kontratuaren guztizko prezioa EHUN ETA HOGEITA HAMASEI MILA ZAZPIEHUN ETA HOGEITA HAMAR EUROKOA (136.730,00 €) izango da, BEZaren % 21 barne.

Hona hemen zenbatekoak, xehatuta:

- Horniduraren zenbatekoa, guztira: 113.000,00 euro gehi 23.730,00 euro (BEZaren % 21).

Hauxe izango da BI LOTEEN banaketa:

1. LOTEA:

- Horniduraren zenbatekoa, 175 luminariarena, 2. BIDE-MOTAKOAK, 40 LED 600 mA-ra arteko optikarekin, erreferentzia kromatikoarekin eta WW730 funtzionamendu-kurbarekin (erreferentzia gisa, IZYLUM 2 FLAT GLASS 5399 EDO BALIOKIDEA): 49.000,00 euro gehi 10.290,00 euro (BEZaren % 21).

2. LOTEA:

- Horniduraren zenbatekoa, 200 luminariarena, 3. BIDE-MOTAKOAK, 60 LED 600 mA-ra arteko optikarekin, erreferentzia kromatikoarekin eta WW730 funtzionamendu-kurbarekin (erreferentzia gisa, IZYLUM 2 FLAT GLASS 5305/5307/5303 EDO BALIOKIDEA): 64.000,00 euro gehi 13.440,00 euro (BEZaren % 21).

Baliozkotze Kod.: 446MA2XHNCSSZH7FT7JHZDEST
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 12

3.- ESKAINTZAK AURKEZTEA:

Enpresa lizitatzaileek eskaintza bat aurkeztuko dute lote bakoitzerako, eta adjudikazio-irizpideen arabera haztatuko da, 11. apartatuan adierazitakoaren arabera.

Enpresa lizitatzaileek haien eskaintzan kontuan hartu eta sartu beharko dituzte udalbiltegira arteko garraio-kostuak, bai eta Getxoko Udalari entrega egin arte sortzen diren gastuak ere.

Enpresa lizitatzaile guztiek eskaintza ekonomikoarekin batera dokumentazio teknikoa aurkeztu beharko dute, ekipoaren deskribapen zehatza jasoko duena, zeinak baldintza teknikoen plegu honetan adierazitako baldintza teknikoak bete beharko baititu. Honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Ekipoari dagokion dokumentazioa (fitxa teknikoa, abian jartzea, erabiltzaileen eskuliburua, etab.).
- Ekipoaren dokumentazio grafikoa (katalogoa edo antzekoa), baita zehaztapen teknikoak ere, baldintza teknikoen plegu honetan eskatzen diren gutxienekoak oinarri hartuta, eskaintzen dituztenak eta aldaerarik ez dakartenak.
- 2. eranskineko diseinu-ataletako argi-azterketa.

Enpresa lizitatzaileek idatziz jaso beharko dute ekipoa entregatu ondorengo hamar urteetan ordezko piezen hornidura bermatzeko konpromisoa.

4.- HORNIDURAREN EPEMUGA:

Lote bakoitzaren hornidura gehienez HAMABI (12) astetan egingo da, kontratua formalizatzen denetik zenbatuta (epea adjudikazio-irizpide automatikoen arabera hobetu ahalko da), eta horniduraren harrera-akta sinatzen denean onartuko da.

5.- KONTRATUA EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK:

Ingurumena babestearren, fabrikazio- nahiz hornidura-prozeduretan lehenetsiko dira karbono-aztarna murrizten laguntzen duten neurriak, beste prozesu batzuen aldean, bat etorriz 9/2017 SPKLren 202. artikuluan ezarritakoarekin.

6.- KONTRATUA ALDATZEA:

Ez da aurreikusi inolako lotetan aldaketarik egitea.

Aurreikusi gabeko aldaketei dagokienez, 9/2017 Legearen (SPKL) 205. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

7.- EKONOMIA- ETA FINANTZA-KAUDIMENARI ETA KAUDIMEN TEKNIKO ETA PROFESIONALARI BURUZKO BETEKIZUNAK:

Enpresa lizitatzaileek honako hau egiaztatu beharko dute:

a) Ekonomia- eta finantza-kaudimena:

Baliozkotze Kod.: 446MA2XHNCSSZH7FT7JHZDEST
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 12

9/2017 Legearen (SPKL) 87. artikuluan ezarritakoaren arabera, lizitatzaileak urteko negozio-bolumen jakin bat egiaztatu beharko du; azken hiru urteetatik negozio-bolumen handiena izan duen urtea kontuan hartuta, gutxienez honakoa izango da:

- 49.000,00 euro, BEZa kanpo, 1. SORTARAKO
- 64.000,00 euro, BEZa kanpo, 2. SORTARAKO

b) Kaudimen teknikoa eta profesionala:

9/2017 Legearen (SPKL) 89. artikuluan jasotakoari jarraikiz, lizitatzaileak azken hiru urteetan emandako hornidura nagusien zerrenda bat aurkeztu beharko du. Zerrenda horretan zerbitzuen diru-zenbatekoak, datak eta hartzaileak (publikoak edo pribatuak) jasoko dira, kontratuaren xedearen izaerari edo motari dagozkionak. Urteko zenbateko metatuaren kopurua, egikaritze gehieneko urtean, honen berdina edo handiagoa izan beharko da:

- 49.000,00 euro, BEZa kanpo, 1. SORTARAKO
- 64.000,00 euro, BEZa kanpo, 2. SORTARAKO

Egiaztatutako lanak eta kontratuko xede diren lanak bat datozen zehazteko, aipatutako azkenari aplikatu beharreko sailkapenik baldin badago, kontuan hartuko da batzuen eta besteen sailkapen-taldea nahiz -azpitaldea; gainerako kasuetan, berriz, aintzat hartuko da bat ote datozen beraien CPVko lehen bi digituak. Egindako zerbitzu edo lanak organo eskudunak eman edo onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira, hartzailea sektore publikoko erakundea denean; hartzailea subjektu pribatua denean, aldiz, hark emandako ziurtagiri baten bidez edo, horrelako ziurtagiririk ez badago, enpresaburuaren adierazpenaren bitartez egiaztatuko da. Zerrendan jasotako zerbitzuen egikaritze egokiaren ziurtagiriak (haien hartzailea sektore publikoko erakundea izan denean) zerbitzuak kontratatzen dituen erakundeak zuzenean jakinarazi ahalko dizkio kontratazio-organoari.

Honela egiaztatu beharko dute beren kaudimena bost urte baino gutxiagoko antzinatasuna duten sortu berri diren enpresek:

- Hornigaien laginak, deskribapenak eta argazkiak, benetakoak direla ziurtatu beharko direnak, erakunde kontratatzaileak hala eskatuz gero.

8.- ORDAINTZEKO MODUA:

Hornidura epe barruan jaso ondoren eta dagokion harrera-akta sinatu ostean egingo da lote bakoitzaren ordainketa; horren aurretik, akta horri oniritzia ematen bazaio, dagokion faktura aurkeztuko da eta kontratuaz arduratzen den udal-teknikariaren nahitaezko oniritzia jaso beharko da.

Fakturan, kontratuak xede duen prestazioaren hartzailea azalduko da, hots, Azpiegitura, Obra eta Zerbitzu Arloa, Getxoko Udalaren kasuan.

Faktura horretan adierazi beharko da zein banku-kontutan ordaindu beharko den dagokion zenbatekoa, banku-transferentziaren bidez. Faktura indarrean dagoen legeriaren arabera ordainduko da.

9.- BEHIN BETIKO BERMEA:

Baliozkotze Kod.: 446MA2XHNCSSZH7FT7JHZDEST
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 12

9/2017 Legearen (SPKL) 107. artikuluaren arabera, kontratuaren adjudikaziodunak, hartutako betebeharrak beteko direla bermatze aldera, behin betiko bermea eratu behar du Getxoko Udalean: adjudikazio-zenbatekoaren % 5, BEZa kanpo.

10.- BERME-EPEA:

Horniduraren berme-epea HAMAR (10) urtekoa izango da, horniduraren harrera-aktatik:

Adierazitako berme-epean hornitutako materialek ez badute kontratuan eskatutako kalitatea, administrazioak jasotzat ez jotzeko eskubidea izango du; kasu horretan, bere ardurapean dagoen kontratistak kendu beharko ditu. Hamar urtez bermatu beharko da modelo horien hornidura, modelo horiek birjarri ahal izateko eta ez daitezen katalogotik kanpo geratu.

11. ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK:

FORMULA BIDEZKO IRIZPIDE AUTOMATIKOAK, GEHIENEZ 100 (EHUN) PUNTU:

11.A.1- Gehienez 71 puntu emango dira aurkeztutako eskaintza ekonomikoagatik. Eskaintza ekonomikoak honako formula honekin baloratzea proposatzen da:

- Gehieneko puntuazioa, 71 (HOGEITA HAMAIKA) puntu, baliozko proposamen gisa onartzen den eskaintzarik onenari emango zaio.
- Gainerako eskaintzen puntuazioak formula hau aplikatuz kalkulatuko dira:

Eskaintzek ohiz edo neurriz kanpoko balioak izango dituzte, Baldintza Administratiboen Pleguan xedatutakoaren arabera.

- Gutxieneko puntuazioa, ZERO, lizitazio-oinarriaren berdina den baliozko proposamen gisa onartutako eskaintzari emango zaio.
- Lizitazio-oinarria gainditzen duten eskaintzak lizitazio-prozesutik kanporatuko dira.

11.A.2- Gehienez 14 (HAMALAU) puntu emango dira muturrean 76 mm-ko diametroa duen zutabe-euskarri gehigarriak kosturik gabe hornitzeagatik administrazioari, honela: 0,04 puntu eskaintzen den D76 euskarri gehigarri bakoitzeko, gehienez 14 puntu.

Azalpen-oharra: Luminariak, lehenespenez, muturrean 60 mm-ko diametroa duten euskarri estandarrekin hornitzen dira eta, beraz, muturrean 76 mm-ko diametroa duten euskarri gehigarri bakoitzeko puntuak emango dira. Horrela, argiteriaren mantentze-lanak egiteko zerbitzuak aukera izango du luminariak bai zutabeetan (D76 mm) bai fatxadan besoetan (D60 mm) instalatzeko.

11.A.3- Gehienez 15 (HAMABOST) puntu emango dira emate-epea murrizteko konpromisoagatik, honela: 5 puntu emango dira lizitazioaren emate-epea murrizten den aste bakoitzeko, kasuan kasu.

Baliozkotze Kod.: 446MA2XHNCSSZH7FT7JHZDEST
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 12

12.- ZIGORRAK:

Hona hemen zerrenda:

IZENDAPENA	DESKONTUA
Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak bete ez izana, jabetzak ez-betetzea ongitzeko eskatu ostean.	Adjudikazio-prezioaren % 3
Eskainitako hornidura-epea bi hilabete baino gehiago atzeratzea.	Adjudikazio-prezioaren % 3
Eskainitako hornidura-epea bi hilabetez edo gutxiago atzeratzea.	Adjudikazio-prezioaren % 2
Eskainitako hornidura-epea gehienez hilabetez atzeratzea.	Adjudikazio-prezioaren % 1

13.- LIZITATUTAKO ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEKO PROPOSAMEN TEKNIKOA AURKEZTEA:

- Honakoak aurkeztu beharko dira nahitaez: gehienez 60 orrialdeko dossier tekniko osoa, plegu honetan eskatutako zehaztapen teknikoak betetzen dituen produktuaren zehaztapenekin; 2. eranskinean agertzen diren bi xedapen-proposamenetarako argi-azterketa arrazoitua, 3. artikuluan ezarritakoa betez. Ez bada jasotzen, eskaintza teknikotik kanporatuko da.

Baliozkotze Kod.: 446MA2XHNCSSZH7FT7JHZDEST
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 12

Hori guztia jakinarazten dizut, jakin dezazun eta ondorio egokiak izan ditzan.

INGENIARI TEKNIKOA	AZPIEGITURA, OBRA ETA ZERBITZU ARLOKO INGURUMEN UNITATEKO ARDURADUNA
Sin.: Jagoba López Ansoleaga	Sin.: Pedro María Sacristán González

Janire Ocio Celadak O.E.

Azpiegitura, Obra eta Zerbitzu Arloko zinegotzia. Ingurumena

Baliozkotasun ondorioetarako eta epeak zenbatzeko, data eta ordua sinadura elektronikoan jasotakoak izango dira.


Baliozkotze Kod.: 446MA2XHNCSSZH7FT7JHZDEST
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 7. orrialdea, guztira 12

I. ERANSKINA

HORNIDURAREN EZAUGARRIEI BURUZKO FITXA

Hornitzen diren luminaria guztiek honako hauek hartu behar dituzte barne:


- Etorkizuneko telekudeaketa-sistemaren ezarpenerako prest egotea; hau da, Zhaga konektorea eta D4i driverra izatea, baina telekudeaketa-nodorik gabe.
- Argia erregulatzeko kontrol-sistema



- Gaintentsioaren (10 kV) aurkako babesa
- Pintura estandarra, grisa, AKZO 900, hareaztatuta, itsas girorako.
- Hamar urterako arrisku orotako bermea


Baliozkotze Kod.: 446MA2XHNCSSZH7FT7JHZDEST
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 12

Aipatutako luminariak (IZYLUM 2 40 LED 600mA WW730 FLAT GLASS 5399) edo baliokideak honako ezaugarri hauek edo baliokideak izango ditu:

Banaketa fotometrikoa: 5399		
Iturria	Led-kopurua	40
	Korrontea (mA)	600
	Kolorearen tenperatura (K)	3000
Babeslea	Gutxieneko babes-maila	IP66 / IK09
Klase elektrikoa	I. eta II. klasekoak	
Lanpararen fluxua (klm)	11.648	
G klasea (ITC-EA-02)	G1	
Potentzia (W)	75	
FM	0.85	
Luminariaren fluxua (klm)	9.643	
Efizientzia (lm/W)	129	

Baliozkotze Kod.: 446MA2XHNCSSZH7FT7JHZDEST
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 9. orrialdea, guztira 12

Aipatutako luminariak (IZYLUM 3 60 LED 600mA WW730 FLAT GLASS 5307) edo baliokideak honako ezaugarri hauek edo baliokideak izango ditu:


Banaketa fotometrikoa		
Iturria	Led-kopurua	60
	Korrontea (mA)	600
	Kolorearen tenperatura (K)	3000
Babeslea	Gutxieneko babes-maila	IP66 / IK09
Klase elektrikoa	I. eta II. klasekoak	
Lanpararen fluxua (klm)	17.360	
G klasea (ITC-EA-02)	G3	
Potentzia (W)	109	
FM	0.85	
Luminariaren fluxua (klm)	14.886	
Efizientzia (lm/W)	137	

Baliozkotze Kod.: 446MA2XHNCSSZH7FT7JHZDEST
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 10. orrialdea, guztira 12

II. ERANSKINA

ARGI-AZTERKETARAKO SEKZIO-TIPOAK

IZYLUM 2 40 LED 600mA WW730 FLAT GLASS 5399 luminariarako edo baliokiderako sekzio-tipoa:



Baliozkotze Kod.: 446MA2XHNCSSZH7FT7JHZDEST
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 11. orrialdea, guztira 12

IZYLUM 3 60 LED 600mA WW730 FLAT GLASS 5307 luminariarako edo baliokiderako sekzio-tipoa:

Baliozkotze Kod.: 446MA2XHNCSSZH7FT7JHZDEST
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 12. orrialdea, guztira 12